

Parazi.

Alexandre ALTXURRUN
Xipri ARBELBIDE
Jean ARROSSAGARAY
Jean BARBIER
Mixel BERRHOKOIRIGOIN
Bernat DETXEPARE
Eñaut ETXAMENDI
Jean Baptiste ETXARREN
Pantxo ETXEGOIN
Dominique EZPONDA
Gaxuxa - Terexa IDIART
Jojo GOYHENEIX
K. KOL
Manex LANATHUA - UHATZE
Gaby LANDABURU

Maiatz.



Contrapas

Heuscara ialgui adi cāpora

Garacico herria
Benedica dadila
Heuscarari emandio
Beharduyen thornuya.

Heuscara
Ialgui adi plaçara

Berce gendec vsteçuten
Ecin scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Euganatu cirela.

Heuscara
Ialgui adi mundura

Lengoagetan ohi inçan
Estimatze gutitan
Oray aldiz hic beharduc
Ohoria orotan.

Heuscara
Habil mundu gucira

Berceac oro içan dira
Bere goihen gradora
Oray hura iğanenda
Berce ororen gaynera.

Heuscara

Bascoac oroç preciaztē
Heuscara ez iaquin harrē
Oroc iccassiren dute
Oray cerden heuscara.

Heuscara

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu guciataric.

Heuscara

Eceyn ere lengoageric
Ez francesfa ez berceric
Oray eztà erideyten
Heuscararen pareric.

Heuscara
Ialgui adi dançara.

ADIXKIDE ... Euskara mintza, euskara idatzi, euskara inprimatu... Ainitzetan entzuten den solasa. Euskara guti mintzatzen, eta aise gutiago idazten ! Gure begier ezin gorde ginezaken egia beltza... Zer da bere buruari amor eman behar, paper xuria eusko zirrimarrez marrazteko ?

IRAKURLE ... Zer dira buru muinak marruskatu behar, euskal literatur xirriparen loditzeko mentura txarrean den ttortta baten jalgi arazteko ?

Ala keinu bat da eskas gogoan dugun zerbaiten sortzeko, edo xoko batean ahantzi dugun pertsu, ipuin, ixtorio, olerki bat, denboraren errautsari eskeinirik, noizbait zabaltzeko enbeia batekin.

Urkulu kaskotik Behorlegi tuturruraino, Detxeparek benedikatu nahi zuen Garazi. OZIAren Kultur asteak kari, jalgi da kanpora Maiatz hau. Ez dira hemen idazle garaztar guziak. Batzu ahantzi ditugu. Besteak ez dira menturatu.

Maiatzaren lehenean, izar distirant bat ehortzi dugu. Mañex Erdozaintzi-Etxartek bere dolorezko izarrak besarkatu ditu.

Hautsek dituztela izarrak sortzen. Huna Garazin piztu den bat.

AURKIBIDEA AURKIBIDEA AURKIBIDEA AURKIBIDEA AURKIBIDEA AURKIBIDEA

<i>Bernat DETXEPARE</i>	<i>Contrapas</i>	1
<i>Gaxuxa-Terexa IDIART</i>	<i>Agur Garaziri</i>	3
<i>Jean ARROSSAGARAY</i>		4
<i>Dominique EZPONDA</i>		5
<i>Manex LANATHUA</i>	<i>Gizonak gaurko mendean</i>	6
	<i>Ixtaklok</i>	7
	<i>Egun guziak</i>	9
	<i>Maite dut su ingurua</i>	9
<i>J.B.Etxarren LOHIGORRI</i>	<i>Urkuluko laminak</i>	10
<i>Jean BARBIER</i>	<i>Behorlegiko laminak</i>	11
<i>Jean ARROSSAGARAY</i>	<i>Aintzila sort berriari</i>	12
<i>Jean BARBIER</i>	<i>Abetxak mahasti baitzurren</i>	13
<i>Xipri ARBELBIDE</i>	<i>Bernat Detxepare, Eibalarreko erretorra</i>	15
<i>Pantxoia ETXEGOIN</i>	<i>Irauli eta ...</i>	18
	<i>Krisailuaren bakarlekuan</i>	19
<i>Jojo GOYHENEIX</i>	<i>Osebaren bizikleta eta gure anaiaren otoa</i>	20
<i>K. KOL</i>	<i>Buatak</i>	22
<i>Jean ARROSSAGARAY</i>	<i>Arbolari kantuz</i>	23
<i>Eñaut ETXAMENDI</i>	<i>Arrailoa</i>	24
<i>Michel BERHOKOIRIGOIN</i>	<i>Gaztain-Xiloa</i>	28
<i>Alexandre ALTXURRUN</i>	<i>Le Réveil Basque-n duela ebun urte :</i>	
	<i>Biba Errepublika (J.B.Oxalde)</i>	29
	<i>Leben eta Orai (Piarres Adame)</i>	30
	<i>Lau Pilotari (Piarres)</i>	32
	<i>Sei pilotarien kbantiak (Piarres)</i>	33

1

Mendi gain batetik agur Garaziri
Egun eder huntan iguzkiz igeri
Hegoak igorririk lanhoak ihesi
Leku pollitagorik ez duket ikusi

2

Hemengo herriak mendien alzoan
Edo berdin orobat Errobi ondoan
Etxe xuri gorriak jarririk multxoan
Hola egon ditela orai eta geroan.

3

Laborari etxeak zelai berdeetan
Bai ere han hemenka patar batzuetan
Bizia eremaiten lan eta borrokan
Laborariek ardura haz dute buruan

4

Zonbat Garaztarrek utzia Garazi
Hemendik urrun dira bortxaz nunbait bizi
Sor herriak ez ditu sekula ahantzi
Zertako ez ditu lekuan atxiki ?

5

Zonbat etxe hustuak gure mendietan
Arbasoen lanak oro debaldetan
Laparrak nasai heldu heien bazterretan
Ez badira erori arrotz eskuetan

6

Aintzina goazin geroari buruz
Mintzaira eta lurra ongi begiratuz
Baitezpada indarrak elgarri juntatuz
Debaldetako aharrak gutarik urrunduz

GAXUXA

agur garazi

Airea : Antton eta Maria

1

Behin gehiago nola xoria kantatzen
Halaber hasten naiz gaur pertsuen moldatzen
Garazi maitea dut ainitz goraiatzatzen
Hori merezi duzu gaur ez dut dudatzen
Ohorea derazut hitz hutsez mugatzen

2

Hitz hutsez muga baino ainitz gehiago
Merezi duzula zuk gogoetan nago
Garazi zaitut denak baino maiteago
Urrez bezti bazina nuke nahiago
Hupatzeko besteak baino-re gorago

3

Guretzat Garazi da izaitzez premuan
Zure haurtxo ttipiak gauden eremuan
Lur onaren fruitua noiz daike damuan
Sustengatuko zaitut gaur indar fermuan
Betikotz egon zaiten denen estimuan

4

Estimua baitago izan ederrena
Merezitu ta lehen eman zauzutena
Atxik azu betiko azkarren gemena
Zaudelakoan beraz guretzat onena
Hortakotz duzu hartze denen aipamena

5

Aipamenean zaude oraindik Garazi
Omena merezituz baita irabazi
Onerakoan duzu beti izan grazi
Zure haurtxo naiz eta behar dut ikasi
Zure oinen azpian nola daiken bizi

6

Amatzat hartzen zaitut herri nagusia
Sortu naizen menetik zaitut ikusia
Zure odola daukat xurgan iretsia
Garazik nerauka ni sortzetik hezia
Nola lehoin gazte bat ezin onetsia

7

Beti segitzekotan dantza eta pertsu
Kantuz egon zaite zu betitik amultsu
Gozotasuna bada egoiten indartsu
Zure eginkizunak bitela dohatsu
Anai-arrebak kausi ez gaiten herratsu

8

Herratsu izaitza munduko tormenta
Gaizkirat nehor orai ez gaitela tenta
Garazi ixiltzen dut gaur ene terrenta
Enetzat egin zazu beraz testamentua
Ene heinaz bainago zure beztimenta

9

Zerbait kantatua dut xuxen edo makur
Gostukoa ez dena nehork ez irakur
Garazik hartze zuen hortaz nago segur
Aipamen xume denaz zertarako beldur
Bere haurtzat daukanak gitea agur.

1

Sortzez Garaztarra naiz eta
 Orai Lapurdin naiz bizi
 Gogo bihotzak nahi ditut
 Gaur hegaldatzerat utzi
 Hastapeneko urte goxoak
 Nik ez baititut ahantzi
 Bertsu berri batzuen kantari
 Heldu nitzaizu Garazi

2

Garaziko lurrean eginik
 Lehenbiziko urratsak
 Eta haur batek egin dezazken
 Nigar irri-ta solasak
 Bai eta ere gazte denboran
 Egiten diren ametsak
 Bizi batean nola ahantzi
 Gazteko urte airosak

3

Garaziko hiri kapitala
 Beti baita Donibane
 Aldi bat baino gehiagotan
 Izatuak gira hane
 Izan merkatu edo feria
 Denetan baigiden barne
 Neure orduko lagunekilan
 Hasi nintzan pertsutane

4

Goizetik arrats astelehenak
 Merkatu egunak daude
 Horarat ere juaiten ginden
 Ardurenik buru alde
 Egun hartan egin behar ziren
 Lanak utzirik debalde
 Hor ere pasatu izan dugu
 Guk hameika arratsalde

5

Donibanen feria egiten
 Dira lau aldiz urtian
 Egun goxoak pasatzen dira
 Neska mutillen artian
 Karrikan kurri goiti beheiti
 Dantzaldia trinketian
 Gu goizik etortzen ginden eta
 Etxeratzen berantian

6

Donibane dena komertsa da
 Baditu aunitz ostatu
 Baginakien nun jan ziteken
 Eta nun zaiken jostatu
 Gure artean bazagon pertsu
 Ixtorio eta kantu
 Garaztarren aiostasuna
 Behine ez da faltatu

7

Biramunean ere oraino
 Kantu musika gogoan
 Bertze feria noiz izanen den
 Oroitzen gira orduan
 Lagun guziek partitu aitzin
 Hitz emena baiginduan
 Berritz ere bertze horen bertze
 Egitea urrenguan

8

Lur maite hortan sortu nintzen ta
 Hor berean naiz hazia
 Jainko onari eskertzen diot
 Egin zidatan grazia
 Hobekiago iragaiten da
 Ontsa hasten den bizia
 Nik ere Garaziri zor diot
 Neure izaite guzia

Gizonak gaurko mendean ez du baliorik. Orduan zer balio izan lezake hunen hitzak ?

Hitzak galdu du bere balioa eta bizkitartean ez gira zekula gaur bezainbat mintzatu. Hitzak, elea denetan ari da kafe xehatzeko mekanikaren burdin soinuarekin. Hitzaren ez balioa hortarik heldu da, hitzaren indar zintzoa lanpustua eta iztilkatua dela . Hitzak jostagailu da. Soinua, azantza, otsa, karranka, buru beharrien mozkortze merkea da hitza.

Ixiltasuna, gauza gordea, ezin argituzko mixterio lanbrodun iheskorrak beldurgarri bilakatu zaizkugu.

* * * * *

Izar ihitzaren mixterio eskasez, orai ote da olerkarien heriotz eguna ?

* * * * *

Hiri Mañex Erdozainzi-Etxart,
hiri Bitoriano Gandiaga,
eta zueri poeta laguneri,
hedagiko oihal artean laster-gordeka,
jostetaka,
tirurika doan
haurraren moxkor burxoroa.

Mañex Lanathoua - UHAITZE -

Ixtaklok. (1)

Ixtaklok
ondoztegi zurpailaren gainean ixtaklok
zango mehe zintzilak balantzan
jarri da haurra.

Ixtaklok (2)

«Hi ? Aspaldiko haritz zaharra
zenbat urtekoa da gizonaren iraupena ?
Hik badakik ? nolaz ?
emazteak jasan behar dituen erdininak, gero,
gizonaren minberatasunak ez badu iraupenik ?

* * * * *

Ibarrak ibarrari,
larreak larreari,
nabak nabari,
pendoitzak pendoitzari irauten dutenean,
olerkariaren hitz umexurtxa trahitzen die denek.
Bildots sort-berriaren arropa xuria
ongarri kakatsuak zikintzen duen bezala,
torra torraka,
tira tiraka,
katzaka katzakaka,
hor,
merkatuko plazen tirabiretan
urkatuko die haur sortu berria.
Buhame zarpail,
umexurtx, joanen haiz olerkari, hire hitzekin,
hire hitzaren ixiltzera.

Ixtaklok (3)

Ixtaklok
ondoztegi zurpailaren bizkarrean
zaldun gazte hezgaitzak
arri ! arri ! dio,
garrasi beldurtuan
desafiozko zaldiaren lauazkako trostari.
Arri ! Arri !
haurñoaren boz alaia
gizon zahar baten oihu hauskor erdoilari
nahasi da.

Ixtaklok (4)

Arri !! Zaldi zurpaila !
Ibarretik ibarrera,
larretik larrera,
nabatik nabara,
trosta - jauzi ezin berdinduan
bere papo zabaleko hats kolpearen indar ikaragarrian,
derama
zaldun hezgaitz zauritua
Ahuxkiko bortutik harandiko hegalerara.

Ixtaklok (5)

Aspaldiko haritz nasaiaren itzal goxoan,
haurño bat zegoen ixtaklok
zaldi zurpailaren bizkar-hezur zorrotzean.
Ke eta gar aztaparretan
joan dira zaldi zaldun
Ibarlako bide gorde harridunetarik.

* * * * *

Olerkari zaldunaren
irrintzin gordina,
hor entzun dut.

Egun guziak dira hitz gorritz ornitzen.
Hitz guziak, pikorka pikorka,
piripitaka,
azkenean, ttukun ttukun,
amatxik ditu bere altzora biribilkatzen.

6 / 6 / 83

Maite dut su ingurua nagoelarik begira.
Hor,
gaztain egurraren izerdi ezin joanak
zapartatzen dira,
eta zezenaren azken adar kolpeak airera
deuseztatzen.
Su ingurura nagoelarik begira,
lamin arinen kantu goxoak
jausten zaizkit kedarretik behera.

Maite ditut laminen kantuak
eta kedarre harriak salda errean
beste horren begi eztiak ditudalarik aldean.

3 / 8 / 83

maiatz: 9

URKULUKO LAMINAK

Laminak ziren denborako ixtorioa... Pentsa beraz atzokoa denez...

Lamin zaharrak erran zioten laguneri : «Hortxetan ikusten duzue Urkulu, aspaldiko dorre motz hori... Erromano gudariak zuten azkenean Akitania bantzutu eta Zesar Augustori zioten eraiki orroitgailu hori. Ikusi bazinute zer harri meta ! Hau baino bietan gorago eta, kaskoan, Zesar-en itxura, bere armekin. Bainan orraiko gizonek horiek guziak ahantziak dituzte, itxura ebatsia izan baitzen eta artzainek gaineko harriak hartu baitzituzten etxolen altxatzeko... Beraz, ez baitakite gehiago nolakoa zen, gau huntan behar ginuke bermatu dorrearen berri egiterat. Denek elgarrekin ez dugua xutik ezarriko, iguzkia atera aintzin ?»

Denek botz batez baietz, laminek hargintza odolean baitute... Briu, brau, ehunka abiatu ziren. «Har harri hau ! — Bota beste bat ! — Etor ene laguntzerat !» Gau guzian lur ikararen pareko azantz luze bat aditu zen omen, Urkulu aldetik eta Garaziraino. Jendea lotarik atzartu ere : «Erran, entzuten duna lur ikara hau ? — Ez duk biziki bortitza ! Ixil hadi hortik, otoi !»

Artaldea aintzinean, Peio artzaina bere etxolatik heldu zenean, ez zen guti harritu ikustearekin han, bihurtune batean, Urkuluko dorre motza arrunt goratua. Eta kasko hartan, alimaleko gudari baten urrezko itxura distiranta. «Alta, alta, ez nuk ni lo, tenore huntan... Ez nuk ere edana... Nundik demontre egin ahal ukan dute holako lana hain laster ? Barda ez zian hemen betiko dorre motza baizik... Ala ametsetarik ari naiz ?» Eta zimikoka hasi zitzaion matelari...

Pettanek oihu luze bat eta artzain lagunak etorri zitzaizkon lasterka. Denak dorre berriari so eta so, alimaleko gudariari so. Hunen ondora igan ziren harriz harri, ahuntzak iduri. Ez zuten behin ere holako itxura haundirik ikusi : Iruñako sanferminetan ibiltzen diren ziganteak baino haundiagoa. Batek erran zuen : «Elizako kurtzearen bideko soldado erromanoa iduri dik !» Eta bestalde ez zuena urrea bezala distiratzen ? «Jende biziak holakorik egiten ahal duela hain laster... Behar ginikek Garazin hunen berri eman... Nor joanen da mezulari gisa erretoraren eta alkatearen ganat ?» Peiok baietz...

«— Hori, Peio, ez ditaken gauza... Nun ez den debruaren lana... Hura ez baitago sekulan lo...»

«— Baietz, jaun alkatea. Barda ez zen hor gaindi betiko dorre motza baizik. Funtsean, ene auzoak ere lekuko dira.

— Orduan, herriko kontseilua behar dut bildu orai berean»

laminak

«— Zuk zer diozu, Domingo ? — Ori, jaun alkatea, urrezkoa balinbada, urre hori zatitu behar ginukela ene arotz-tegian urtarazi eta. Familia bakotxak hunenbeste hunki lezake. — Eta zuk, Mañex ? — Nik diot, han denaz geroz, han behar dela utzi. — Nik aldiz nahi nuke denak harat joan gaiten. Ikusi gabe, zer egiten ahal dugu ?»

Zanpa zanpa bazoatzin patarrari goiti...
«Ez ginikek behar, gero, alferretan egin holako piaia... — Urrunetik baginu urrez eta, harat hel eta, lurrez... — Ixilik egon, otoi, hire tritsoekilan. Baitugu... aski lan !»

Urkulurat heltzean, denak harriturik zauden...

«Hauxe da aldapen espantagarria !» Erreintak, zirri zarra, dorre berriaz egin zituen dotzena bat marrazki, lehengoan gainerat.

«Ta, orai, jaunak, zer behar dugu erabaki ?», erran zuen alkateak.

— Ni ez naiz gudarien alde. Baketiarra daukat ene burua. Joan bedi hemendik urrun itxura pozoindatu hori ! Ez dauku zorigaitzik baizik ekarriko...

— Nik diot behar ginukela Garaziko plazan ezarri orroitgailu hori. Kanpotiarrak ekaraz lezazke, denen onetan...

— Hemen berean egon dadila... Gau bakar agertu dena, gau bakar joaiten ahal zauku !

— Jaun erretorak zerbait otoitz atera dezala ikusteko debruaren lana den edo ez...»

Denak tirabiraka... Lotsaturik, alkatea mintzatu zen: «Hemen bakotxa ari da bere ganat indarka... Hunat igan artio besterik zen... Beti erabakiak hartzen ginituen goxotasunean eta onean onez. Iduri luke urrezko itxura hunek nahi gaituela. Beraz, helduden-igandean, herri guziaz bozkatuko da, emazteak aintzinean...»

Etixerat etorri ziren akiturik. «— Zer duzue bada gain hortan ? — Deus onik ez. Urre madarikatu horrek hoztu gaitu elgarren artean.

— Bazterrak haatik berotuko dira Garazin, jendeak bozkatu beharko baitu igandean !...»

Ortziralean oihan-zainak etxez etxe aipatu zuen delako bozkatzea.

Aratseko haatik, Peio artzaina berriz etorri zen bortutik, izitua, hatsa ezin hartuz. «— Ez dakizue ? Gudaria joana da... Dorrea berriz apaldu da lehengo heinerat».

Norbaitek erran zuen : «Hori, behialako laminen lana... Gizoneri laguntza bat ekarri dute. Laguntza hortarik mutur salda etorri zauku... Beraz beren lan zoragarria desegin daukute...»

Bozkatzerik ez zen izan, Garazirendako haundi baitzen. Urrerik ez zuen gehiago nehork aipatu. Eta Urkulu betiko lano petan gorde zen, ahalgetua bezala.

LAMINAK

BEHORLEGI MENDIN

Behorlegi Mendin nun nahi baziren lehenago Lamin ziloak.

Artzain batek, egun batez, ikusi zuen Bas' Andre bat, urhezko orhaze batekin zilo hetarik batean orhaztatzen ari ; ez baitzen guti harritu !

Bainan Bas'Andreak erran zion ez izitzeko eta zilo hartarik, bizkarrean hartu'ta, eremaiten bazuen Apanizera, diruz zer nahi emanen ziola.

Artzainak : baietz, eremanen zuela gogotik.

Hartu zuen beraz bizkarrean ; bainan, zilotik athera ere gabe, sekulako animaleak jali zitzaizkon bidera. Harritu zen artzaina, eta, Bas' Andrea han berean arthikirik, eskapatu zen ahalik eta lasterrena.

Bas'Andreak, orduan, oihu bat egin zuen ikaragarria, eta erran zuen marrumaz : «Madarikatua ni ! Mila urthez egon behar baitut orai zilo huntan !»

Eta geroztik, han da, zilo hartan ; artzainik ez baita sekulan harat menturatzen.

Ixtorio hauek J.Barbier'k zitian kundatu 1925-ko Martxoko «Gure herrian». Pentsatzen diat Lohigorriren «Aintzin solas» bezala hau sartu.

Gaby LANDABURU-k atzemana

1

Aintzila herri maitea
Goxotasunez betea
Zu gurea ukaitea
Atsegin hori handia dela
Maite dugu erraitea
Badugula suertea
Zure seme izaitea
Dago zinezko bakea

2

Zaitudan bezain maiterik
Nihun ez dago besterik
Zitaiken baino hoberik
Jendea beti hemen bizi da
Bihotza alegerarik
Arrotza jiten delarik
Hortaz ez dago dudarik
Itzultzen dela trixterik

3

Zure lurrean sortuak
Gazteak ta zahartuak
Denak gira ohartuak
Herria zuri ditugula guk
Izaite oro hartuak
Onenak eta gaixtuak
Gaudeno zure fruituak
Gora gure espantuak

4

Zonbat den zure adina
Nehoz ez dugu jakina
Noitsu zaituzten egina
Erran nahi dut bihotz barnetik
Zaude nere atsegina
Beraz hemendik aintzina
Handia ginuke mina
Bertzen eskuan bazina

5

Bizi gireno munduan
Amaño baten moduan
Zaitugu gure goguan
Ez beza nehork sekula erran
Denbora joan onduan
Behin hartuta buruan
Kanpo toki urrunduan
A ! zer herri mina duan

6

Maitasun faltan ihesi
Joanik ez dut ikusi
Aintzila duenik utzi
Holakorik bat kausi baladi
Bihotzez nuke gaitzetsi
Gezurrik nola sinetsi
Ezin litaike iretsi
Izena balaike hautsi

aintzila

7

Duen izena haustea
Dago herriko kaltea
Ukatuz bere maitea
Hola gertatuz erran behar da
Sinezko ezin bestea
Dela kalte suertea
Min handienaz betea
Omenaren itsustea

8

Omena galduz geroztik
Lurrerat doa erroztik
Idai onena gogotik
Gaizki doana hartu dezagun
Tinki tinkia besotik
Zuzendu dadin gaixtotik
Nola arbola ostotik
Trixteziako lanotik

9

Zuzentasuna begira
Eta ereman ongira
Hartze dugun iguzkira
Herri maitea erakutsazu
Zutaz daukazun dirdira
Gezurretik ta egira
Bihotzez zuzen bagira
Igor gaitzala argira

10

Aintzilak urrun gakoak
Lehen hedatutakoak
Badauzka aspaldikoak
Eginak beti segi ditzala
Izaite onerakoak
Azkar ditela flakoak
Beti herri huntakoak
Lagun gaitzala jainkoak

Marmizolleneko jauregiaren ondotik, Ybar-negaraiko patarrari beheiti heldu ziren lau *Ahetxak*, lauak molde berean Jainkoak lan-thuak. Apezarena bezalako xapel bat bu-ruan ; bizarrrik gabeko begitarte on bat, lana-rekin borrokan bethi bizi diren jendeen be-gitarte ona. Ardi larru bat bizkarretik dilin-dan ; gerruntzearen inguruan, gerriko urdin zabala ; zubiarekilako eta botoin handiare-kilako zaragoila nasaiak belhaunetaraino ; belhaunetarik beheiti, galtxoin lodi lodi ba-tzu, eta abarka higatu batzu gero zangoe-tan.

Donianeko portaletan, doi-doioko behatze bat egin zioten Apezetxe eta Xaliès guarda zaharrek. Kontrabanda guti alabainan holako kontrabandixtek ; Ahezkoatik zerbait ekar-riko zuten baino hobeki, Ahezkoarat ere-manen zuten geroxago ahal zuten guzia. Frantses diruak, denbora hartan oraino, zu erranarazten zakon bere buruari.

Tanpa, tanpa, Espainiako karrikari behei-ti bazoazin orai, beren haitzur handiak biz-karrean ; bi plegu eginak, belhaunak aitzin, nekatzaile gehienen moldea hola ere den be-zala bethitik. Gauza eta jende, orori beha hel-du ziren, eta oro heieri beha zauden hala hala. Etxeberri zapatainaren lantegiaren aitzinean hurratsean lauak iragan zirelarik, *Alphonse* zapataina, bere bethiko ezin-errexituarekin, oihuka hasi zitzaikoten : «Boxke ! Karabillante !...»

Oihu egin ere zakoten, hean *behor-arrol-tzerik* nahi zuten erosi, behialako mando-zainak bezala ?

Bainan Ahetxak bazoazin bethi beren bi-dean. Hain xuxen, zubiaren gainean, osineko arraineri beha, *Paxkal* zena, Plaza-Biltzale maltzurra, hantxet zagon, debruak Ahetxeri goiz hartan igorria zinez eta egiazki. Ahetx horieri ohartua ere zela jada, erran gabe doan gauza, karrikari beheiti tente potente heldu zirelarik. Bainan, alegia eta deusere, izokin ttipi bati ogi-porroxka zerbaiten arthikitzen ari zen, bere maltzurkeria zarrenetarik bat gogoan ordukotz erakitzen utzirik.

Abarken harrabotsatarat, burua emeki emeki altxatu zuen, Ahetx gaizoeri behatu, eta gora gora erran zakoten :

«Norat zoazte hola ?

- Lan galdez, haitzurtzera

- Haitzurtzera ? To, to ! Eta zonbat galde-giten duzie egunarendako ?

- Bakotxak hiru libera

- Hiru libera izanen dituzte beraz bakotxak, eta bedera pinta-arno, ene lur berri bat nahi balinbaduzie haitzurtu. Hamar bat egunen lana badukezie.

- Ondo, ondo ! Gogotik arras eginen dixigu.

- Patar xuta baita, haatik !

- Igual dixi, igual ; xutagorik badixiu Ahetz-goan...

- Goazin beraz...»

Eta Paxkal zakurra aitzin, badoatzi bost gi-zonak, elizaren eta ur-handiaren arteko bide xarretik. Gaztelu-maldari buruz.

ahetxak

Ixtorio hau J. BARBIER'ena duk eta atera duk 1926 eko urteko agorrileko «Gure Herria»-n. Ahetxak dituk Ahezkoarrak. Aezkoa Iratiren bestaldeko bale bat hameka bat herri biltzen dituenak. Ixtorio hau GABI LANDABURU'k atzeman.

AHETXAK MAHASTI HAITZURREN

Bai patar xuta zinez Gaztelu-malda hura !... Mila arbola ederren erdian, maldaren kasko-an, han orai berrehun urthe altxatu Gazte-lua, Zitadela, Espainiari beha dago bethi gau eta egun, soldadoz eta kanoiez orraturik. Maldari goiti, hurratsean bezala, bertze ar-bola batzu aztaparka badoatzi, beren lepoak luzatuz, beren ile berdeak alderdi guzietarat hedatuz. Arbolen artean, harroka handi ba-tzu, lur idor mehe batzu : Paxkalentzat haitzurtu behar ziren lurrak.

Gure Ahetxak, bide bazterrera beren ardi-larruak arthikirik, xutik hantxet daude, mal-daren azpi azpian. Eskuatarat thu eginik, buru-has emanak lauak, zapartaka hasten di-ra, gazteluko paretari jo eta jo beren haitzur-rekin. Onak dituzte haitzurak, azkarrak ere besoak ; pindarrak badoatzi alderdi eta harrabots izigarria eraikitzen da, halako deskantsuan ordu arte zagon erreka polli-tean.

Bi eskuak kurutzean, xutik Ahetxen gibel-ean, heieri beha dago Paxkal Plaza-Biltzalea ; eta irri zuri bat heldu zaio ezpain xokoetara. Ezpain xoko heiekin, kasik begiekin, ñastaka ari da, atseginaren atseginenez. Hola hola egiten ohi du gatuak, jada aztaparkatu duen saguarekin...

Bulta bat gisa hortan loriaturik egon ondo-an, urrundu zen Paxkal, bere Ahetxeri oi-huz erraiten ziotela : ongi berma zitezen ; *Arzagueteneat* bazoala berhal berehala, Na-far arno onaren bila.

Eta lau Ahetxak ari ziren ari, demuntreak hausteko, Paxkalek hitzeman mama gorria gogoz jada goxara hurrupatzen zutela...

Eta huna, oren laurden baten buruko, *Eiharaberriko* bidexka guzia jendez betetzen dela, emeki, emeki. Eta jende hek oro hantxet, langile gaizoeri beha eta beha, urrun-aire emaiten ziren denak irriz eta karkailaz. Ahetxak, lanetik doi doieko bat gelditurik, beha zauden hek ere jendeeri. Eta handi kausitzen zuten hiri guzia holaxet heldu baitzitzakoten burlatzera.

«Manuel, zer mila demonio dute bada egun San-Juandarrek ?

- Nik ondo dakita, Pedro ! Iduri luke inor inoiz ez dutela Frantses horiek masti-aizturren ikusi.

- Ala, ala Manuel ! Gure nausiari erranen diogu, nardatzen gituztela jende demonio horiek guziek...»

Eta jo aintzina beren haitzurrekin...

Dohakabeak ! Ez zakiten ongi, Paxkal ihizi harek berak igorriak zirela jende demonio hek oro, eta Paxkal bera, zubi ezkinean, irriz ari zela karkailaka hura ere, deneri oihuka. Oren erdi bat holaxet joan zen, eta Doniane guzia bildua zen ur-handiaren aldean. Ahetx gaixoak, erhotuak ari ziren orai, noiz eta ere gertatu baitzen Paxkal maltzurak igurikatzen zuen hura bera ...

Haitzur harramantzeri oharturik azkenean, baionetak zizparen edo harmaren buruan emanik, Gaztelutik jausten ari, agertu ziren kaporal bat eta lau soldado !...

Eta orai, *arraioa* eta *karanba*, beren ardi-larruak esku batean, haitzur handiak bertzean, lau Ahetxak herrestan bazoazin Gaztelura, galtza gorrien artean eremanak. Doniandar debruak ahur-huxtuka ari zitzaizkoten aldiz beheretik, Paxkal demonioa ororen akulatzaile.

Gaztelu-barnean, xorrotx eta murriz, kapitain nausia langile dohakabeeri galdez ari zitzaizkoten, zer ari ziren han, *Goberniako lurretan* jo eta jo, ororen funditzen ?... Jainkoak daki nola beren buruak xuritu zituzten hantxet, baizik eta begi erneko gizon apal batek bere mahastiaren haitzur-tzera ereman zituen, hiru liberetan truk, pinta arnoa bertzalde... Nontik behar zuten jakin, Gobernioarena zitekela Gaztelu-maldaxuta ?

Harro-aldi ona eman zakoten kapitainak, preso emanen ere zituela bortizki mehatxatu, baina ororen buruan, largatu zituen aitzindariak...

Egun hartan guzian, Paxkalen ondotik, hura atzeman eta garbitu beharrez errabiatuak, ibili ziren lau Ahetxak. Baina, gaixtakeria egin duen lekurat gaixtagina beti biltzen ohi den bezala, Gaztelu-maldan gorderik egon zen Paxkal ilizia. Eta, Gaztelu-maldan salbu, orotan bilatu zuten Ahetxek, eta nihun ez atzeman...

Arratsean, Donazaharreko Pette, bere pipa ahoan, etxe aitzinean pipa eta pipa ari zelarrik, ardi larruak soinean, haitzurak bizkarrean, Ahatsarat buruz iragan ziren langile gaixoak.

Norat zoazin Pettek galdegini, beren nahigabea kondatu zakoten. Eta Pettek, zalukara ikusi zuen Paxkalen jokoa zitekela hura guzia. Baina, Garaztarrak Garaztarra behin ere saldu behar ez duen bezala, deusik ez zakoten erran. Lekunberriat, Duleyneko mahastietarat igorri zituen bakarrak, lana bazu-ketela han...

Baina Paxkal figura hil izan zelarrik, Pette Donazaharrekoak zion : bi egun Purgatoriotan egon behartu zitzaizkela Paxkali, Ahetxak zeren hala enganatu izan zituen.

Nik ez dakit, baina baditake oro bat. Ezen, Pettek badu seme bat, katixima Handiak eta oro gogoz ontsa badazkiena. Eta seme harek errana balinbadako hori, segur

Errekiezkat in paze !

BERNAT DECHEPARE EIHALARREKO ERRETORRA

Bernat (hola idazten zuen bere izena ordu haietan ohi zen bezala), Bernat Dechepare beraz, Sarrasketa Etxeparean sortua daiteke. Etxe hori hor dago beti, baina 14-garren mendekotzat ezagutua zen «Casamaior» izenarekin. Noiz sortu zen ez dakigu xuxen, baina 1500 baino lehenago, hain segur 1480-ekotzat. Bere liburua, «Linguae Vasconum Primitiae», 1545-an argitaratu zuen Bordeleko inprimategi batean, ordu haietan ez baitzen inprimategirik hurbilago.

Diruz lagundu zukeen, Bordeleko Parlamentuan abokat zen Sara leheteko Bernatek : honi eskaintzen dio bere liburutxoa (52 orrialde).

GARAZI ETA BAXE NABARRE

Zertan ziren Garazi eta Baxe Nabarre denbora haietan ? Beren ixtorioko urte inportanteenetarik eta trixteenetarik bizi izan dituzte. Baxe Nabarre, Nafarroko erresumaren 6-garren merindade edo probintzia zen ; Nafarroa berriz Europako erresuma zaharretarik bat.

Bainan Frantzia eta Espainia azkartu zirelarik, hor zagon, xingar xafla bat bi ogi xerraren artean bezala, zoinek zion lehenik ausiki eginen, biek beretu nahi baitzuten. Hain xuxen, Bernat Detxeparen denboran zenafera trenkatu.

1512-an, Pernando katolikoa, Espainiako erregea, Nafarra guziaz jabetu zen uztailean. Jean d'Albret, errege zuzena Biarnora bota zuen ; azken honek, Louis XII Frantziako erregearekin akordio bat sinatzen zuela, ustez eta honek lagunduko zuen bere erresumaz arrajabetzen ! Urruñan, Urtubiko jauregian sinatua izan zen akordio hori.

Ordu haietakoak dira ere, katoliko eta Protexantent arteko kataskak. Frantzia eta Nafarro-Biarnoko erregeek ez zuten aski bertute erakusten protexantent kontra. Jules II aita Seinduak, Jean d'Albret eskumikatu zuen. Espainiako erregea ordukotzat sartua baitzen Nafarroko lurretan, eskumikatze hortaz baliatu zen bere buruaren xuritzeko : ez zena elizaren xerbitxuko ari ? Elizaren etsai baten kontra ?

Jean d'Albret entseatu zen bai, bere lurretaz jabetzera ; Batean haren peko, bertzean Espainiako erregearen peko ginauden. Guhaur bi partetan ginauden : Batzu Lukuzeko jaunarekin (Beaumontesa) Españolen alde ; bertzeak, Bidaxuneko Agarramontesekin Frantziaren alde. Ordukoa da Amayur-ko gudua, San Frantsesen bi anaia preso eginak izan baitziren hor (1521-an). 1521-an frantsesekin, gero Español, 1522-an frantsesekin, 1524-an berriz ere Español ; 1530 frantsesekin, eta hor, ixtaparentzat, zeren eta Charles Quint Espainiako errege sartu zelarik, ohartu zen, sobera gostako zitzaiola mendiz honaindik lurren zaintzea eta amor eman zuen. Ordukoa dugu Baxe Nabarreko erresuma.

DONIBANE, EIHALARREKO ERRETOR

Giro hortan bizi izan da Bernat Etxepare ; Arte hortan zuten izendatu Eihalarreko erretor, Baionako Bikario Jeneral, Baxe Nabarreko zat, eta Donibane Garaziko apez nagusi, azken bi karguak elgarrekin baitzoatzen. Nolaz zen Eihalarren biziz, Donibaneko erretor, hori mixterio bat da. Izendatze hori 1518 baino lehenagokoa dugu, bainan ez dakigu xuxen noizkoa. Bertrand de Lehet, Saratar apezpikuak izendatu zuen, Espainiako erregearen baimenarekin, eta izendatze hori salatzen daukun paperrari esker dakigu Detcheppure erregearen gizona zela : errege jaunaren zerbitzari hauta dela dio paperrak. Plazer haundi bat eginen diola erregeri izendatze horrek eta gainerat, erregek dio, ez duela bertze norbait onartuko kargu horrentzat.

Ez zuten uste gabetarik ordaindu Donibaneko erretorra ; Aintzinean Don Pedro de Mendicoaga zen apez nagusia. Zer pasatu zen honekin ez dakigu xuxen. Dakiguna, nonbait bazela zerbaite johan ez zena eta ordaindu izan behar izan zutela. Apez on eta saildu eta eskolatu bat behar zuten hortarako, eta Decheppure arras egokia hatxeman zuten, haiek behar bezalakoa.

Izendatze honek Detcheppure biziko bertze gune ilun bat argitzen dauku.

APEZA PRESO

Mosen Bernat Etxeparen kantuan, 102 lerrotan kondatzen dauku nola preso zagon Biarnoan. Jaun erregek deiturik joan zen, arrangura poxi batekin naski, bainan ez halere preso emanen zuelakorik gogoan. Faltsu testimonioak aipatzen dizkigu, hobetik ez zuela ere erraiten. Zer gatik zuten ba preso ezarri ?

Zonbaitek uste izan dute emaztekarria zelakotz. Egia erran, 10 amodiozko kantu badira Detcheppure liburuan, eta bertsu batzu arras gordinak. Hona zer irakurtzen dugun «Emazteen fabore» deitu kantuan.

Munduak ez du gauzarik hain eder ez plazentik
Nola emaztia gizonaren petik buluz gorririk
Beso biak zabaldurik dago errendaturik
Gizon horrek dagiela hartaz nahi duenik.

Bainan emaztekarria izan balitz ez zuten erranen Donibanekotzat behar zuten apez «on eta saildu», hura zela.

Haren bizia hurbiletik ikertu dutenek diote berantean apeztu zela, emaztetaz desgustaturik. Esperientzia bazuela emaztekin ezin uka. Kantuetarik bat «Amore gogorraren despita deitzen da» Berari gertatuaz mintzo ote zaiku hor ? Iduri luke apez «saildu» batentzat bertze nonbait xekatu behar dela arrazoia.

Gorago aipatu dautzuet denbora nahasiak zirela Nafarroko ixtorioan.

Batean Espainiako erregeren meneko ginela, beste Nafarrokoaren meneko ; Baxe Nabarren batzu Espainiako erregeren aldekoak zirela, bertzeak Pauen zagon erregeren aldekoak. Eta hain xuxen Detcheppure Espainiako erregeren adixkidea zen, Donibanerat izendatzea aipatzean erran dugun bezala. Ez ote zen aski Paueko erregearentzat, gure apeza itzalean ezartzeko zonbait denboraz bederen ? Bere biziaren kantuan erraiten daukau «Erregeri ez dizit falatatu». Ez ote, hor zekalotz gai minbera ? Politika arrazoin batentzat zuelakotz Pauera jin arazi ? 1521 baino lehenagoa ez daiteke izan afera hori, ordu arte ez baitzen Español erregerik Nafarroan.

Zer gatik zuen hautua alde hortara egin Decheppure ? Katolikoa zelakotz eta Jean D'Albret ez zuelakotz aski segurra hatxemaiten alde hortarik. Eta ondoko urtek erakutsiko dute ontsa ikusia zuela, Paueko errege erreginak protextant bilakatuko baitira.

1533-an libro zen. «Statutos sinodalis» lege liburu batetan agertzen da haren izena «Bertrandus de Charparre, rector Sancti Michaelis Veteris».

1559-an izen bera badugu auzi paper batean, bainan ez da gehiago Eihalarreko apez ekarria. Orriako fraileen auzi bat zen. Orriara erretiratu ote zen zahartzearekin ? Ez laiteke harritzeko, zeren eta Eihalarreko parrochia, Orriako fraileena zen : ordu haietan bi eliza baziren, bat oraiko hil herrien erdian, bertzea ondoan, Ospitale bat Arbelainian eta honen kapera oraiko Arotzainean. Zaro ere Orriakoa zen eta ordukotzat Eihalarri lotuaz elizaz. Konpostelako beilak martxa ziren, eta Eihalarre, Orriako fraileek sortua zuten, mendiarri gora abiatu aintzin, pausu lekutzat.

KANTUAK

Jadanik erran dut 10 kantu badituela *amodioaz edo emazteetaz*. Bainan amodioaz kanpo zer dio emaztetaz ? Gaurko egunean badira oraino, hura, duela 450 urte zen lekutik urrun baitaude alde hortarik. Hona zonbait neurtitz :

Andren gaitz erraile orok behar luke pentsatu
Bera eta bertze oro nontik ginaden sortu
Ama emazte luien ala ez nahi nuke galdatu

Emazteak ez dut entzun, lehen gizona jaukirik
Bana gizonak emaztea, bethi ere lehenik

Mila gizon gaixtorik da, emazte batendako.
Gizon baten, mila andre bere fedean dago

Ez uste izan emazteak baizik ez dituela aipatu. 450 neurtitz baditu *erlisioneaz*. Lehenak apeztu ondoan idatziak, hauk berriz gero ? Hori ezin erran. Hiru kantu beraz erlisioneaz : Dotrina kristiana, hamar manamenduiak eta judizio jenerala.

Duela 450 urte jadanik, arrangura zen gure mintzairerik gutiatsia zela : «estimatze gutitan». «Bertze ooren gradora» nahi zuen igan zedien, ixkiriataz. Ez zuen hatxemaiten mintzairerik, «ez Frantsesik ez bertzerik» euskararen parerik, nahiz euskaldunen mintzairerik «oro burlatzen ziren». Bi kantu, azken biak, euskera gure mintzairaz.

¶ Sautrela

Heuscara da campora, eta goacen oro dançara

Oheuscara laude ezac garacico herria
Ceren hantic vqhen baytuc beharduyan thornuya
Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.

Henscaldunac mundu orotanpreciatu ciraden
Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen
Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen
Oray dute iccassiren nola gauça honacen.

Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya
Eci huyen lengoagia içanenda floria
Prince eta iaun handiec oroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira.

Desir hura conplitu du garacico naturac
Eta haren adisquide oray bordelendenac
Lehen imprimiçalia heuscararen hurada
Basco oro obligatu iagoiticoz hargana

Etay lelori bailelo leloa çaray leloa
Heuscara da campora eta goacen oro dançara.



BERTZEAK

Liburu bat argitaratu duen lehena izan bada ere ez uste izan neguko bortuan galdurik legokeen ardi galdu bat zelakorik. Baziren bertzeak ere euskal kultur alorrean ari zirenak. Bertsulariak orai bezala, haien bertsuak galdu baitira ez «inprimiturik». Bainan ere jende eskolatuak idazten zekitenak.

Oihenart Xiberotarrari esker badakigu, Jean Etxegarai apez batek idatzi zuela «Artzain Gorria» pastoala. Garazin, behin baino gehiagotan emana izan zena. Harri batez bi xori, erran zaharrak dion bezala, denbora berean ikasten dugu ordu haietan pastoalak emaiten zirela Garazin, Xiberun bezala.

Oihenart horrek berak erraiten dauku Utziateko priorea zela Lograseko Eñaut, hau ere olerkaria; eta izenak erakusten daukun bezala, Garaztarra. Etxepare, Logras, Etxegarai, hiru idazle, ehun urteren buruan oraino ahantziak ez zituztenak, bazen jadanik idatzizko Euskal kultura bat Garazin 16garren mendean.

Dechepare izan da euskarazko lehen liburua idatziz zuena. 450 urte berantago ez ginuke azkenak izan behar.

KANTUAK

- Hona non entzun dezazkezuen Detcheparen kantuak.
- Kontrapas (euskara jalgi hadi plazara) : Oskorri, Maite Idirin, Xabier Saldias, Xabier Lete
 - Eskaintza : Oskorri
 - Sautrela : Oskorri
 - Dotrina Kristiana : Oskorri
 - Pottaren galdatzea : Oskorri
 - Amoros sekretuki dena : Oskorri
 - Mosen Bernaten kantua : Oskorri, Maite Idirin
 - Amoros en disputa : Oskorri
 - Andreen fabore : Oskorri, Maite Idirin
 - Judizio Jenerala : Oskorri, Maite Idirin

IRAULI ETA ...

Maiatz, maiatzaren hastapena
Zure lehen argizpiak
Iguskiak iraitzean,
Xut agertzen zirenean
Pazko-loreak xaradietan
Gorrindol kolore zure aurpegian
nere gogo zait,
hamalau urteraino itzultzen hasia
oraintxet irauli nahian
maiz idazten nuena
nere buru munetan.

* * * * *

Argi zirrintak,
luhartzeari dei egiten zionean
lurraren egunkaria zetorren,
zintzo bezain urgoi
Iraulariak,
bere matraza gainean makurturik
barnakor idekitzen zuen,
lurraren bular kolpatu eta
ekoizlea.
Larruzko uztarriak
elgarri tinko atxikitzen zituenak,
Haugi ! emeki ! ez hor geldi
ez dik aski tiran kadena hori !
gorputz lerdan eta, sakon begi
kopeta pizu eta zimur batez
aurrera zebiltzan,
erritmo berean, nekez.
Eta halere,
goldeak pikatzen zuen mokor
erdi-idekirik, purruxkan zihoan
ke-adarretan,
burdin erdoilduaren atzetik,
belarrak dardaran utzirik,
bizitzaleak urraturik
bere bular ertzetik,
ez zezaketen asma holakorik.
Eta haintxe zegoen,
lur karrakatuan,
Ohe hondatsu bat,
helduden eraintzaren pausagi.

* * * * *

Azken eraintzaren alea,
erroak hazi nahian
lurraren ibilaldi luze luzean.
Eta, eguraldien eraginean
sasoinaren pizuak
lerratuko zaizkiolarik
espalda gainetan,
Urre eta zilar uharkadan,

P. ETXEGOIN

Hazia hozi, hozituko da
 bainan,
 zoriona labur dakarzu
 Zure fruitutze beteak
 hain tinko zeudenak
 esku herstu batzuetan,
 zarrastan eramango dituzte
 eta, zeure indarrak sekailduz joanen dira
 San Juliako oiharpetan,
 erauts bilakatzeko.
 Eta zu,
 Selauru batetan naretuko zara
 edo beharba, ez jakinean zure izena
 ttipiegi den zaku batean, zaharragotuko
 arnasa galtzeko punduan
 Eta ni, jauzi eta jauzi !
 ateko krixketa ere iratzarrarazi !
 eta artekatik,
 hurbiltzen natzaizu
 laztanduz zure azken ileak
 zure hatsak, haurko orroitzapenetan,
 itsutuki mozkortzen nau ;
 nere bizitza, denboraren errota bezala
 alea xehatuz eta xehatuz doa,
 udazkeneko lehen haize boladan.

KRISAILUAREN BAKARLEKUAN

Mahain enborrean,
 ukondoen pausagi
 Nere gogo eta,
 hostoaren lekuko,
 Zu, Krisailua.

Zure begietan,
 kausitu dizut,
 Nere ganik ihes egiten zuena.

Zuk erre eta erre
 Nik, hitzak egin eta desegin
 Idatz-lumaren joan jinean,
 Eratzikitzen naiz,
 Zure gogoetak kondatu beharrean
 Arlotzen naiz,
 zure dirdiran.

Badoaz nere orenak
 zure ikea,
 lerroka doan bezala
 Zure antzan higitzen naiz,
 Azaldu nahian,
 daukazun argia
 edo,
 Zugabeko ilunaren bitxia.

P. ETXEGOIN

Hilabete hau txarra dugu ez, primadera begi klixkaka ari. Bena ezin fida ! Nork errain zien henegun aratsaldia ikusi-ta, bardako aiuta heldu zela ? Eta barda prese-ski, kaskoan hazka nindagolarik, hamekak irian, jakiteko zer behar nuen ixkiriatu, hasi dira denek entzun duzketzuen burrunba eta xixtiak... Atxx ! Zer aiuta ez zen ? Segur kanpoko aro ! Hamekak eta erdiak iriak joiten du telefonak. Ene anaiaren emazte gaia zen. Hemendik hirutanhogoi bat kilometretarik arrangaturik ari. Anaia joitekoa zitzaion ikusterat, bainan denbora txarra izanez eta, lanak berant aire finiturik hamarrak et'erditan partitua zen. Eta gaixo nexka, konpreintzeko baita, berantetsia. - «Ze partitia baita ! aro hunekin ! Oihama. Iten nintxin ba etxen geldituko zela araiz»

- «Baaraiz, berant bena partitia duxu. Ez xitu hortan uztekoa gio !»

- «Bo ! bo! Nik harriturik behaixit egon Ze! aro hunekin zeait gertatuko ziaxoxu»

- Etxitela hola arrangura. Engoitik urrandia duxu. Debria ! Iraunen dixi ba ! Boh ! oto hunaikin-ta badixi holako bat ikusirik ba ! Zer da ? Oren bat bide ! Otoan ttotto bergian eta horrat-ta ez hozteko irriskurik aintzina».

Ni nihauna gogoan ez nintzan ez sobera anaiatz urrikaldia egiaren erraiteko. Ordian kontsolatzeko eta idurikatzeko kundatu dakot Oseba Ellanderen ixtorio bat...

Ene oseba Ellandek, duela hogitahamar urte, emazte gaia Ezterenzubin zuen, éta bixtan da, gostaren gosta, Lekunberritik Ezterenzubiraino bidaia egiten zuela, egin ahala ardura. Bainan ez otoan ! mendiz, ardurenean oinez. Zonbait aldiz zaldiz edo mandoz. Hori henkako bidea zen ! Bertzenaz bertze bidea Donibanen gaindi zen, inguruan ! Bena hori bekan zen bizikleta bazuelarik edo hun zuelarik. Hori «otorruta» zen, okasione haunditakoa. Beraz berhilabetea zen eta Otto Ellande'ren espos bezpera. Aña Mariri hitzemana azken atsian eginen zuela itzulia. Hala ! bihamuneko xehetasunak pikoan zuzketen ba, segur-enik bainan halere ! azken aldikotz... - «Etxi balio maitia bihamunian akitia izanen xira eta bizikleta hautsia duxu»

- Akitia ni, Ehee ! Eta bizikleta galdeginen dixit ba Frantxuari. (Hau auzoko lagun bat zen). Azken aldiandako prestatuko diaxu ba ! Jinen nuxu ba !

- Baia»...

Eta kabal soñuak goizik eginik, abiatu zen ilun nabarrian Frantxuaren bizikletean... «Azken aldikotz emazte gaika...». Bena denbora txarra zen eta barda beno ez entrehalian txarragoa. Amak so egin zion partitzian, borta aldartzetik bena ez zaion gomendiorik egin. Seme azkarra zuen eta biharamunean ekarriko etxekandere xarmanta....!

Ba ba beha ! Ez baitzen aroa alegiaka ari... Ortzantz euri eta haize. Boh ! Donibaneraino gainbehera diat eta eztituko duk ba arai. Egituk abenduan». Altzietarat orduko trenpan zen. Bena boh ! esku batez bonetari beharitaraino tiraldi bat eman eta saka. Ortzantzak jo tiro bat, Ellandek irrintzina. «Bihar atsean Aña Mariikin nuk». Ezterenzubiko plazaraino heldu zen. Han haatik bizikletatik jautsi behartu. Haizearekin ez zitaken geio gainen egon eta dupan bezala ilundu zuen. Eta Frantxuaren bizikleta huna ! bena argia Eiheralarrean pasatzean baratia zitzakon «Bon bon ! hiru oren laurden huñez eta han nuk ! Ahinduko dik ba sarriko». Engoitik emana zuen Ellandek, beharbaino doblia denbora geio bidean, bena aintxuño heldia zen. Ikusia zuen hantxet beste pahatan argi ttipi-ttipi bat. «Hua sukaldeko leioa etxe pekaldeat emaiten duena». Bena orai ez zen geio ageri, ezen oihan arte batean sartia zen eta erreka pasatu behar. Hor kasu ! Zubi txar-txar bat bazen frango gora eta aintzina, neguan, sahets bat galdua.

Beraz, hortaaaz gioz ez baita sekula fidatu behar, Ellande'ek nolazpait zubi mutur bat atzemaiten du, bizikleta hari kokatzen eta abiatzen da aztaka, itsu-mandoka, untsa lotuz, haize asto horrekin, bi eskuak libre behar zituela zubi horren ikertzeko. Heldu zen ba, beste bururat, bainan artean, haize ufako animale batek bizikleta urerat aurtiki !! Ordian ze erran zuen Otto Ellandek, ez du kundatzen, bena nik uste, tirahala españolez mintzatu zen eta, zerbait gisaz zubi perat jautsi, laharren artetik, urako eta zarrasta, erori eta xuti ! Frantxuaren bizikleta ikertu zuen han berean, eta, pedala bat falta ! Españolez berriz hasi, ez ! Nigarrez hasi ez ! Biak ito zituen, gizon azkarra zen Otto Ellande... Tirabiraka bizikleta atera, bizkarrean ezarri, boneta segurtatu eta kurri. «Bihar esposatzen».

Gero bere ixtorioan Otto Ellande'ek pasaiaño batzu huts egiten ditu. Hala nola Aña Mariren ganat heldu zelarik. Hor ez dakit xuxenik. Hasteko euskara garbia zitaken. Kasu !

- Bena ordian Maitia, huai, huñez joan beharko duxu mendiz eta bihar goiza ixtantean jinen duxu. Ordian etxu luzaz egon behar hemen. Gaizoa ! aski duxu bizikleta hemen uzta...»

- «Ze Frantxuaren bizikleta... dda dda ! Ez ez ! Hartuko dixiu behar den denbora, deus ezpaltiz bezala eta bizikleta hori eramanen dixit gibelerat. Hoop ! Bego, ahantz-zkitxu horiek, utz-zkitxu enetako ! Huai hemen gitxu biak, eta bihar...»

Arte huntan, pasatu zitezken bizpahiru oren aiseixa. Eta Ellande, karkulaturik noiz partitu behar zuen argiko Lekunberrin izaiteko, abiatu zen, bizikleta bizkarrean, bidexkari petigora. Aroa eztitua zen eta Ellanderen urratsak ez ziren orroit bezperako edo nehoizko akidurez. Lekunberriko mendi kasorat heldu zelarik ohartu zen haizea ez zuela entzuten geio, bena bere burua kantuz ! Alta ez zuen usaia haundia kantuz artzeko. Bana iduritzen zitzaion Buruntzan beheiti urratsa luzatuz, kantari haundi zela eta kantari haundi zen !

Argi zirrinta etxerat heltzean. Ama gaixoa jeikia zen ba jadanik ! Ikusia zuen Ellande heltzen, gainbehera bizikleta bizkarrean. Ez

zuen amak xehetasun beharrik. Otto Ellande bortara orduko, jin zitzaion kikera bat eskuan, irri amultsu batekin : «Hor hiza gaizoa ! To hau, bauk ba beharra». Kikera erdikala putxuz betea zen.

Egun goizean, zortziak irian, etxeratu da ene anaia, otoan, begitarte dispos batean lanean artzeko. Untsa lo egina eta orraztatua, esplikatu daut emazte gaiak ez duela nihuntik ere utzi, holako denbora txarrarekila partitzerat. Alainan !

Hor ikusten ditut nik bi gauza, puxka bat diferentak, ene anaiaren eta osebaren artean. Otto Ellande'ek emazte gaiaren ganat behar balin bazuen ainitz penatu, etzuen haatik haren etxen edo harekin pausatzeko xantzarik. Ene anaiak aldiz, ez balinbadu emazte gaiaren ganat heltzeko biziki penatzerik, izanik ere biziki urruno pausatzen ahal da haren etxean, edo harekin.

Aroa ez da ez lehendanik kanbiatu, denborak dira, denborak kanbiatu !

Anaiak edan du kafesnia etxerata, baina ez dakot putxurik eskaini !



**Buat-ek edo «boites»-ek gero ta gehiago leku hartzen dute gure bizian eta gehiago dena gure bizia-
ren balio guzia hartu nahi lukete.**

«Buatzen zazpi egin-ahalak»

Gazte gira gazte, gazte gira gazte, hogoi ta bat urtetan
Ibilki girade, gauaz bidez bide, bideko buatetan.

Gure olioia, merke ta bakarra ; «wizkia» artetan
Xardinak bezala, purdia airean, jostatzen buatetan.

Ezkontzea aintzin, haurrik ez nahita, xoko ilunetan
Konfiantza dena, ezartzen dugula, pilula buatetan.

Ezkondu ondoan, lanean ari-ta, jaten tarrapatan
Baskari guzia, prest da erosi-ta, kontserbu buatetan.

Gazte ginen gazte, etxean ez dugu, txamindeik ketan
Apartamendua, hartua baitugu, hiriko buatetan.

Noizbait haurrak haundi, ta zangoak maingu, tripa haundietan
Baztertzen ordian, hatsaren hartzerat, zaharren buatetan.

Hilen baigirade omen pasatuta, oi ! azken hatsetan
Eremanen gaituzte, maian bezala, zizari buatetan.

BUZTAK

arbolari kantuz

Jean ARROSSAGARAY Jean ARROSSAGARAY Jean ARROSSAGARAY

Airea : Andereño bat ikusi nuen

1

Hasi bezala pertsutan daukat betitik ene gogoa
Aments batean egin dutana egun egirat badoa
Jainkoak eman dautan ideia agertzeko dut erroa
Guziek jakin dezaten zer den arbolaren balioa.

2

Arbolatikan egiten diren asko gauz xoragarriak
Horri pentsatuz kausitzen dira bibotzez hunkigarriak
Mundu guziko lurretan ditu jaunak bada ezarriak
Balio handiz derabilzkigun gauza estimagarriak

3

Neguan butsik ta primaderan ostatu arbol alaia
Zonbat klasetan kausitzen zaikun izanduna ta nasaia
Oso gogoan denak jujatuz hartu dezagun usaia
Arima hartze luken gorputz hau izendatzeko anaia

4

Ez dut ikusten ene bizian zutaz gabetu herririk
Diren guziak erranen ditut bobekienik hasirik
Etxeak dauzkan zurtateak ta leioak eta aterik
Kausi zaikena ez bazintu zu jaunak atxiki bizirik

5

Eskuko tresna denen giderrak eginak baitira zurez
Gainerateko klasea frango guziak arraza berez
Horiek denak gizonarentzat eskaini dira beharrez
Zonbat kabala ez zaiku hazten gaztain, pabatx ta ezkurrez

6

Horren beharrez gabiltzala gu beraz gutiz gebienak
Egia dela hori argi lezake gauza dakienak
Arbolak dira gure munduan denetako beharrenak
Zeren jendeak hoitarik ditu jaten fruiturik onenak.

7

Zuraz bestalde ederragorik zer dagoke sukaldean
Nebork ukatu ote lezake agertzen dutan moldean
Xamindeiaiko patantxa ere zurez baitago gordean
Kadera baten gainean jaten dut mabainaren aldean

8

Argiratzea gauza horiek gaur ene gogoan dabil
Hortaz behartu gabe egunik ez baititaike erabil
Egun guziez zure gainerat behartzen baigira umil
Ohe zurean sortuak gira ta ban nabi ginuke bil.

9

Biziak bizi, joanak joan, guziak hala beharrez
Arbolak beti hunkiko gaitu bere izaite ederrez
Jende biziak bai eta hilak hartuz bere aztaparrez
Azken pertsuko hitza gogoan bihotza daukat nigarrez

10

Agur bero bat eskaintzen dauzut mundutarren izenean
Zure beharra izanen dugu denek azken egunean
Gauden bizirik beste hartara aldatuko garenean
Azken tokira joanen gira zure lau pusken barnean.

Arbolari kantuz Arbolari kantuz Arbolari kantuz

arrailoa

Eñaut ETXAMENDI

Bide-Xuri zabala eta fina zen, harri xeheak zohan tinki lurrean elgarri josirik. Euriten zue-larik astoak doidoia zituen bere hatzak han mar-katzen, eta bere hurratsek azantz arraia egiten ere baitzuten : krika krika krika. Bide hegitik beheiti erroitza zen, zizturra malda bat, eta be-heraan hur-haundia karraskan bazohan. Errekaz bestaldetik beste mendi zizturra bat xut-xuta eliza-dorrea bezain. Han potza ondota ezpel-tzeak, berbulla ilun batzu, eta ere primaderan pentxe ttipi berde arinak. Hango potxak xuriak ziren eta ezpel-petan haize-lili xuri eta urddinak sortzen ziren inñarak etortzean gure xokorat. Mendi zirritu hartan ardiak nola ibiltzen ahal othe ziren xutik ?!

Negu hartan ainitz elur egin zuen, aldi batez hainbeste elur erori zen, ezin hurtuz hogoita bat egunez egon baitzen. Gau batez itsas-haizea eta euri turrustak hasi ziren bat-batean eta mendi guziak buluzi ziren. Bas-hurak zurruman marru-miaka denetarik, haizeak etxe ta bordak inhar-rosiz ortzantzak bezala, elur-lurten burrunba! Ez ginduen lorik egin. Aita jin zen «iratzararaz-terat» katiximarat juaiteko : «jeiki behar tzie, «beltza» agertu'uk». «Beltza» lurra zen. Aita-ren irria !

Ostegun goiz haren trixtea hurez-hur, lohiz-lohi ! Bainan Gainekeo bidetik Peio bere lagun-ekin heldu zela ikusi eta elgarri irrintzinaka hasi ginen lasterka zoinlehenka bide-juntartzeko. Dena solas, dena irri. «Oh ! Ze bashurak ! Saukaldeko erreka bidia in gañetik turrustan diaxu !

- Gohonetxeko zubia hurak hunkitzen dixi ! Oh ! nolako burrunba iten zien errekek !

- So'ixu, zanguak busti txiu Saukalden !

- Argiikee etxiu

- Gukee ez. Hariak elurak hautsiak zitxin

- Ba ba ze elurraak...»

Peio ni baino zaharrago zen urte bat. Gatuarekin xori ihizin artzen zen korraleko elur-bidetan

- Harrapatu txia xoriak ?

- Ba araiz !

- Nola ? nola ?

ARRAILOA

- Baa, hungarria ezartzen nixin elurreko xendran eta hartarat xoriak jiten zielaik polikiño gatia eskutan hurrantzen, eta gio gatiak jauziten zixin punpian ! eta xoria harrapatzen.

- Ta etziena berak jaten

- Eez ez ! fite hatzemaiten nixin, elurriari ezpeitzen zalu eskapatzen ahal, eta xoria kentzen.»

Peio ta biak pilotan artzen ginen eskolako hegaldeian elgarrekin aste guzian. Ostegunetan ere bethi elgarrekin artzen ginen herriko plazan, alta bazen beste ainitz lagun ere. Peiok artzañ gogo zuen izan gero, eta nik ere ba. Eta gure berri guziak elgarrekin erabiltzen gintuen.

Ostegun hartan pilotako etzen aro. Eguerditan katiximatik athera ginelarik iruzki xinka bat ari zen. Etxerateko bidean hantxe-heentxeka harri bizkarrak idortzen hasiak ziren.

«Bide-Xurin kaxkian beha'ixiu aizan !

- Oh ! ba. Baitxia bisosekuak ?

- Ba'ituanez ?» eta bilur batean gerrendurik bazituen sakelan berrogoi seurik !

Lasterka denak Bide-Xurirat zoinlehenka.

Bainan oraino urrun zen eta akitu ginelarik bide-bazterrean jarririk ixtorio kondan, tipitoak gureganatu arte. Peiok eskola etzuen maite, nik ere ez, bainan jostatzen baiginen biziki, gogotik juaiten ginen eskolarat nahiz ikastea maitegabez. Bihurgune baten haratekaldean zen Bide-Xuri. Eta berriz laster... Eta zer ?

«Ooh ! oooh ! So'izie, so'izie, so'izieeee !!»

Nexkatuek garimak egin zituzten. Bide-Xuri kraskatua zen, izigarriko arrailo batek urratua zuen bidea berrogoitahamar bat hurratsetan. Bidearen zabalaren hiru laurdenak nunbaitan lerratuak ziren poxi bat erroitzarat buruz. Arrailoak izanen zukeen metra bat. Egin berria iduriz, lur ta lohi puskak turta turta erortzen batziren arrailoaren bazterretarik. Harriturik gindauden so.

«Lur-ikara izan dela gauaz eta hak higiaazi'ixi lurra.

- Ez ez ! euri turrupitek eta bashurek dutela lurra arraildu.

- Oh ! ta uai nuntik paastuko dira behi-orgak ta astuak ?!

- Baa, arrañatuko'ixie ba gizonek

- Herriak, ba herriak arrañatuko'ixi hori» erran zuen Peiok.

ARRAILOA

Baginduela zer konda etxean ! Aita jua zen ikusterat, eta beste etxetako aita ere ba. Elhaka ta elhaka arizan ziren.

Gero jin ziren bi gizon beltzaran burdinhagekin, burdinhaga mottorduna bazuten : tarrraaa-ta-ta-ta, tarrraaa-ta-ta-ta... Peko-Bixkarreko potxa gerendari. Zilatzen zuten, dinamitez kargatu eta bfunbaa...! Zer tiroak ! Harri lauzak erauzten zituzten eta metan ezartzen. Bai eta gure aita eta beste gizonak orgetan kargatu eta Bide-Xurirat eremaiten. Han Ahezkoako hargin batek gaitzeko harrisua egiten ari zuen pendoitzean. Zer lanak !

Bide-Xuri ezarri zuten kartak bezala arraeginik.

Handik gero ta gero Peio lagunekin bere bide-tik lasterka katiximarat eta gu guhaunetik berdin gindohatzela oihuka, artzain-astoak ikusi gintuen Saukaldeko gaztaiñdoian. Pagaltzetarrak astoen biltzen eta akulatzen bideari behera elizarat... Hegoa zen.

«Zer tzie, elizaat eemaiten ?

- Ez ez !»

Zer karkallak !

«Gehaxiain bordan sar ditzaun uai, saarri etxeakuan astoz ibili beha'ixiu !!!»

Haur mentsak. Katiximatik landa, pilota ta garaitikoak utzirik astotarat zoinlehenka. Bedera astoren gaiñean gizonak zaldiz. Ba ba bainan asto abre gaixto temattuak nehoat ezin molda. Bidea utz eta zelharka zerri-xendrerri behera ipurdiak altxaka. Peio erori zen bere astoaren kumatik behera (burua beheitzen baitzuten gibela zerueta-rat igortzean abre madarikatuek), eta Peioren gaiñetik jauzian astoa... putar bat fina despeituz adio gisa. Zer irriak ! Uai harrapa zak zamaria ! Heldu da ba Peio ene ganat, nik asto maltsoa nuen. Maltsoxko ere, ez beitzen tokitik kantitzen. «Xade xade nik akulatuko dauxut» eta zizt egin zakon ziriaz gibeletik, astoa abiatu ere labrokan beharriak apalduz, bai ta iratze-maldarat tirripitaka, burua beheiti ipurdia bixt ! goiti, eta adio gizona ! biri-birika zizturrari behera. Gaixo soñekuak ! taullerra urratua... belauñ ta esku kozkorretako zarramaskiak ? deus etziren arropetako makurraren eretzean.

«Deurru mentsa ! Zendako sistatu duxu iztape-tik ?» Peio hobeki irriteko bidean etzanik ari zen. Beste lagunek asto perestuagoak zituzten. Bazabiltzan aphezpikua bezala promenari bide zabalean. Haatik Urinhaizeko-Bixkarreko hegiraino bakarrik, handik gibelerat jiten ziren. Alabainan toki hartan iragan eta gure etxea bestaldeko menditik guri so zagon... asto-jokoetan ez gintuzten ikusi behar!!

Eskolan baziren bi harroka bizkar xorrotx bat bestearen ondoan : baño bestea baino beherago eta bien artetik atheka hertsu bat dena harria. Hetan jauzteka zen gure jostetarik bat bihotz-bihotzekoa. Bizkar batetik besterat pliu ! Ez dugu sekulan jauzia hutsin... bestela ez gindaizke orai ni idazten ari eta Peio Gorhostietan artzaiñ ! Elgarri espalakoñak gordetzen gintuen, bestea jauzika ari zelarik. Beraz, eskolarat gero orthutsik ez sartzekotz espalakoñak soñean behar ginen ari han jauzteka... Behin Peiok espalakoñaren huña hautsi zuen luzean-luze ! Zangoak ez. Arrainka ere juaiten ginen errekarat. Hureka, jokoetarik bat : bat biziki axolaturik zagola arraiña ezin bilduz harripe zokoan, besteak atzeman zezakeen amelharririk pollitena bota osinerat ahalaz arrainkariari hurbil pulunparazteko gisan...

Eskolan, bixtandena bethi euskaraz baizik ez ginen mintzo, kanpoan ala barnean. Errientea bera frantsesez. Behin errientak «buchette»a eman zautan eskolarat sartzean : behar nakola beste bati eman euskaraz entzunen nuelarik... azkenik zukeena arratsean eskolan ilun artino. (Etxean egin behar lanak ? ardibiltze, ihargia egite eta garaitiko ? Pollitak gintezkeen...)

Errekreazionean Peiok «are ! pilotan kanpoka ariko giela !

- Oixu Peio «buchette»a

Peiok jestua gelditu zuen eta so jarri eni. Denak ixilik. Begitartea gogortu zitzakon burdinhagadun gizon beltzari bezala, «buchette»a besa-gainka bota zuen oihanerat...

Kiskun kaskun elhe zombait baizik etzen nabari izan eskolako hegaldeian, frantsesez, egun hartan. Biharamunean berean oro euskaraz.

Bainan Peio etzen geihiago potxetan jauzteka enekilan artzen, ez eta pilotan, ez kaxkian, ez kartetan sistian. Behin eskolarat sartzean her-runkan pusarakoak baziren eta Peio ene gibelean izanez nik ere pusarako bat ukan nuen. Ez ginen mintzaten egun heietan. Pusarako bat eman nakon higidura ordukotz geldituxea zelarik, paso bat eman zautan biribila kokotzean.

Hamabost urte jua nituen herritik urrun. Behin Donianen merkatu egun batez Peio topatu nuen beste gizon batzurekin. Berriak erabili gintuen... edan behar ginduela trago bat elgarrekin. «Ez ez ! Barkatuko dauxu, justu justua prisa'ixit biziki, bestaldi batez.»

«Gaztain-xiloa» izena duzu... Garazi, Baigorri edo Xuberoko baserri ttipixka bat zinen... Zinela diot, ezen orain, ez baizira. Ez zira gehiago deus... Izaite ekonomikorik ez duzunaz geroz, EZ ZIRA !... eta kitto !

Alta mendez mendez, sortu, hazi eta biziara zi ditutzu familiak : zortzi, hamar haurrekoak... Mendiari kontra, atera zira beti : behi, zeri eta ardi kotsia... egiten zen hura kasik dena garbi, eta ez zen despendiorik behar ! Uros bizi izana gatik, xuhurki itzulikatu behar, eta laneko orenak ez kondatu...

Bainan, atzo hein batean itzulikatzen zena, egun kasik ezin da ; Gaztain-Xiloko eskualde guzia, zonbeit urte hotan jada husten ari da, eta, badakizue desertauek desertua dakarrela. Gaztek ere bizi nahi dute, eta Bizia ez da lanean mugatzen...

Dena den, Gaztain-Xiloko nausi etxeandereak hirutan hogoi ta zonbeit urtetan dira eta, beren parte egin baitute, erretrata altxatzen hasiak dira ; zorigaitzez segidarik ez dute etxaldean... Bi semeak behere hoi-tarat joanak : bat polizan sartua eta bestea PTT-tan lanean ari ; alaba bat mediku baten etxean «naxkato» eta bestea eskola libroko errientsa... Hala, «denak beren zituazionearekin !...»

Horra beraz, beste etxalde bat gutiago... ez da gure herria, hortan ere, beste oska batez ahantzatu ; «Bo ! diote auzoek... hamabi ektara oraiko egunean ez da aski ! Aise hobe da laborari gutiago eta, diren hek hobeki bizitzea !...» Horiek hola, Gaztain-Xiloko lurak amikanoak arrandatzekoak omen ditu... Omen !... Ikusiko hori gero !

Ze memento txarrean hustu den etxalde hori : orai, hoinbeste jendek zerbeit egingo zutelarik ! Lehengo gobernuak ere, laborantza nekea laguntzeko ideia zuen mementoan, justu justua orduan (!), ez baita izigarri, bozetan kanporat joan behartu zitzakon...Eta, gobernu berria jin zen : ha! hunek ba zerbeit eginen zuen... alainan, ez dutea hitz emana ? eta, hitz eman badute, doaika... Ez baitira denak batian egiten ahal... Zer nahi duzue, ez dakigu xuxen kanbiotik landa zonbatgarren egunean den denbora aldatzen... eta batzuetan, tirrit, ez da aldatzen ere !...

Ba zinez, memento txarrean hustu da Gaztain-Xiloa, hoinbeste eskual seme alaba ari zauzkigularik oihuka : «Herriak bizi behar du...»...«Lurra Laborarier»...«Diruduna erosle»... Alta, norbeit etor baledi zure lurretarat, ados zintake ez ? Norbeit planta baledi Gaztain-Xiloen... Ho ! ibiakoitze igande guti libra zindezake, eta zure alokairuak ttikiegi litezke Greziarat edo Albaniarat bakantzetan joaiteko... Bainan, zer nahi duzu...

Ixo... Ixo... Ikusten dut norbeit heldu, argazki hartzeko tresna bat eskuan... egia da, baduzu itxura berezi bat... «Etxe ttipitto aintzin xuri bat, lau haitz ondoren erdian, itturriño bat aldean...» «Klik», hartu du argazkia eta fier da gure gizona !

Esplikatu daut : «Gaztain-Xiloen itxura, heldu den udatik goiti, Garaziko karrketan hatxemanen duzue milaka eta milaka, delako Xinan eginak diren «Souvenirs du Pays Basque» horien gainean, label » gisa lotua»...

le réveil basque-n

DUELA EHUN URTE

Bi pertsu andana hauek «Le Réveil basque» izeneko aldizkarian agertu dira 1886 eko urte inguru horietan. Euskal Herrian apezak ziren jaun eta jabe, Errepublika mila sorginkeriaz kondenatzen zutela. Hortako, artetan, kasetalari horiek egin arazten zituzten orduko pertsularier Errepublikaren aldeko hitzaldi batzu.

Bi andana horietan laboraria dute aipatzen, Etxahunen gisan, «bestendako lanean» ari den batendako pasatu araziz. Ideia hau oraino ere da naski arras hedatua ez !

ALTXURRUN

BIBA ERREPUBLIKA

1

Errepublikan egin lan hunez orai nahi naiz mintzatu
Gure arbaso eroriak, nola zituen altxatu ;
Orduko lege berriak eskuetan baititugu,
Hersatuki konplitzera, entseatu behar dugu.

2

Errepublika jin aintzinean huna zer den munduan
Gizona gizonarentzat esklabo baitzen orduan
Autor batzuek hartu zuten gauza hau beren buruan,
Ikusirik laboraria zela azken estatuan.

3

Gure aitasoak, hal'ikustia, etzena phen'ingarri,
Izerditan trenpaturik bertzen hazten ziren ari ;
Beren naken saririkan, ezin galda nehorri,
Lege berriak baitzituen, beren herrunkan ezarri.

4

Orduan deskansatu zen, gaixo laboraria ;
Ez baitzakien oraino zer zen ogi xuria ;
Gogotik landatu zuen : Biba, lege berria !
Orai bederen izanen duk erreholtaren erdia !

5

Orai dela ehun urthe, jarri zen Errepublika.
Geroztik hemen dabila, guri hurbil itzulika,
Estimatu behar dugu haren azken bisita.
Oro anai ezarri gaitu : hau dugu lege pollita.

6

Harek eman abisu hunak behar dugu onhetsi
Oro aditu ondoan eta, ez burutikan utzi
Gauza horren ahaztia ez othe laitek gaizki
Ongi egiten duenari eskerrak bihurt azkarki.

7

Gobernuak igorri du galde hun bat egun hotan :
Deputatu bat eskas duela Pariseko Ganberetan,
Hortakotz gertatzen dela, langile beharretan,
Badugunez hango gisarik, Eskual herri hotan.

8

Entzun dudan bezain laster, ezpainez egin dut irri,
Bainan eztut orai artio hori salhatu nehoi :
Deputatu xuri denik eztute hartu nahi
Gorriak baizik ez hartzekotz, gan bedi Murde Berdoly !

9

Etsamina egin dezagun, orok ixil ixila.
Ez gira ibili behar falta eztenaren bilha.
Yaun hori gauza guzietan ezpirituz da abila.
Nausiak maitatuko du, bere gostuko muthila.

10

Gobernuak zuretako badauka amodio
Zu behar zira han sartu, hori dela medio,
Sehi hune nahi dute izanik ere kario :
Muthil txarrak nehorentzat, deusik ez du balio.

11

Murde Berdoli barka zadazut hartu dudan ausartzia ;
Sartzen ez bazira ere har zazu pazientzia,
Gobernuaz ez baitzira oraino ahantzia.
Kanpotik ere izanen duzu, galdatzen duzun grazia.

12

Zaharri gogua huntzen bertsu emaiten hasita,
Aiten penez orhoitu eta, bihotza hasten jauzika
Bainan ezpaitut probetxurik dolore hartan sar eta
Guziendako laster izan da : Biba Errepublika.

Jean Baptiste OXALDE
Poete basque âgé de 80 ans.

18 avril 1887 . «Le Réveil Basque» izeneko «Journal Républicain» hartan
agertu ziren bertsuak.

LEHEN ETA ORAI

Airea : Bidarraitarra nuzu bai nahi ere

1

Izan nauk ipharrera hego aldetik
Iguzkiko partera mendi batetik.
Eta diat ikusi guzien gainetik
Inozentzia hainitz gizonen partetik ;
Abila hargatik
Duk, egundainotik ;
Egin gabe deusik.
Ederkiena bizi bertzen lanetik.

2

Munduan jarri zuan injustizia.
Nagusitu zelakotz alferkeria ;
Zenbait abilek, ez dik denbora handia,
Beretua zutela, mundu hau guzia ;
Hik laboraria,
Eragin hazia.
Eta bil bihia ?...
Abilarentzat zuan ogi xuria !!!

3

Aditu diat ere bazka onenak
Ez zituela zaldi nekhatzen zenak :
Oilo, oilasko eta ollanda gizenak
Jaten ez zituela hazten zituenak ;
Janari finenak,
Arno gozoenak,
Gauza hoberenak,
Abilek zituztela iresten denak.

4

Sortzetik hiltzeraino, laboraria,
Uztarri-pehan zuan hire tokia.
Eta, beti lanean higatuz bizia :
Hirerik ez zukeian non phausa erhia ;
 Bertzena guzia ...
 Zer injustizia
 Ikharagarria !
Azienden herrunkan hintzen jarria !

5

Hogoi mendez bederen hola munduan
Gizona gizonaren esklabo zuan !
Abilek ezarria urhezko tronuan,
Bazuan bat errege guzien buruan ;
 Haren inguruan
 Alferrak zituan
 Bizi deskantsuan
Eta gu lanarekin beti guduan !

6

Lagunak, ez duk errex orai sinhesten
Jenden inozentzia nolakoa zen ;
Erregeren nahia baldin hala bazen
Miliunka zitian gizonak altxatzen
 Harmak har-arazten,
 Lerroan ezartzen
 Gerlarat egortzen
Eta han inozentak elgar xahutzen.

7

Zinez zorigaitzeko denbora hetan
Nolako miseria zen bazterretan !
Pobreak bilhuziak non nahi bidetan,
Hotzak eta goseak hilak erdietan !
 Zenbat ama hetan
 Haurrak besotan
 Gaixoak herrestan !...
Alferrak libertitzen jauregitan !

8

Ethorri zuan bada noizbait oreana
Gizona herrestatik altxatu zena.
Eta porroskaturik gate zakarkena
Bere gizon deretxoak hartu zituena !
 Hau gure aitena
 Duk obra lehena
 Eta ederrena :
Gizona esklabotik egin zuena.

9

Xoil ez dik ehun urte, lagun maiteak
Gizonaren herrunkan gure jartzeak :
Lehen ? Batzu nagusi... esklabo bertzeak.
Iduri aita baten ez ziren umeak !!!
 Geroztik jendeak
 Handiak, xumeak
 Aberats, pobreak
Lerro berean gaitik jarri legeak !

10

Ala dadin aberats, ala pobrea
Gizona gizonaren duk haurridea.
Eta gu goratzeko bertzen aphaltzea,
Gure anaiari duk laido egitea !
 Elgar aditzea
 Elgar maitatzea
 Eta laguntzea :
Hori duk egiazko Yainko-legea.

LAUPILOTARI

Airea : Oi Bethleem

1

Bun ! Zim ! Bun ! Bun !
Hau du timbal uzki pitzerra.
Bun ! Zim ! Bun ! Bun !
Eskualdunak atera egun !
Ez dakit nungo asto larruz
Bi buruyak tuen enkarguz
Emanak zun !

2

Agur Jaunak,
Beraz berriz mintza gaiten
Agur Jaunak,
Samurran zarezte denak
Debrua bezen gorriturik.
Hautxet lanak !

3

Egiari
Nork diro erran : Gezurra bitz.
Egiari
Hura da betbi ageri.
Zertako bada alferretan,
Haren kontra ziezte betan
Mintzo ari !

4

Badakigu
Pilota maite duzuela
Badakigu
Eskualdunak zuek eta gu !
Bainan zeren bila hantxera,
Juan zizte Donibanera !
Pena dugu.

5

Bat banazka
Mintzatuko zaituztet bemen
Bat banazka ;
Solasak utziz erdizka.
Matelatik zoinek du galdu
Zebe bat larru ? Ala du saldu ?
Zer sarraska.

6

Zalapartan
Frikunen kontra nor zen basi !
Zalapartan !
Bainan gero gorde bertan ;
Billard makila ben xixtia
Ez zen batere on aditzia
Ondotik-an

7

Orai xuka
Ondarrari erranen ditxit
Orai xuka ;
Egin omen duxu bi laka ;
Badakixiu orok zertarik
Bainan izan ez dain dudarik.
Aoti K.K.

Piarres

SEI PILOTARIEN KHANTIAK

Airea : Oi Bethleem

1

Donazarren
Pilota partida bat dute
Donazarren
Sei lagunek egin aurtben ;
Afari bat, baman gotzoa
Otel haundian jatekoa
Zen jokatzan

2

Pilotariez
Dugun erran hemen bitzño bat
Pilotariez.
Seitarik lau arabez
Aboan botzik gabe dire ;
Pilot utz lirot ez balire
Azkar zainez.

3

Beso gaintza.
Gaztek pilota zabilaten
Beso gaintza.
Zabarrak aldiz... eztulka
Partida noizbait akhabatu da
Izan ondoan frango duda
Jo eta saka

4

Afaria
Prestaturik hautxet zagoten
Afaria.
Donibanen aphaindia
Jaun Escanda zuten hautatu
Koziner-zat. Harek xarmatu
Konpagnia

5

Arno onak
Gizona kukulatik jotzen
Arno onak
Hauk dire oihu saminak !!
Kuku Donibandar guziak !
Atx ! Atx ! gero dira zauriak.
Zer taloak !

6

Herriari
Ohore emazue bada
Herriari ;
Iten da hemen afari ;
Eta ez talorik barrapatzen
Bertzaldian prudenki gatzen
Sinbets hori.

BAIONAN

Jakin: 8 avenue Foch
 La rue en pente: 29 rue Poissonnerie
 Musèe basque: 1, Marengo karrikan
 Zabal: 52, Pannecau karrikan

BILBON

Galeria del libro: Ercilla, 35
 Herriak: Lizenzado Poza, 11
 Kirikiño: Colon de Larreategi, 11
 Universitas: Alameda de Mazarredo, 6
 Verdes: calle Correo

DONAPALEUN

Amikuze liburutegia
 Barthaburu liburutegia

DONIBANE GARAZIN

Maison de la Presse

DONIBANE LOHITZUNEN

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

DONOSTIAN

Bilintx: Fermin Calbeton, 30
 Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13
 Manterola: Manterola, 8

GAZTEIZEN

Herrikoia: Cuchilleria, 76

HAZPARNEN

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

HENDAIAN

Derro liburutegia: 18 rue du Port

IRUINEAN

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)
 Auzolan: San Gregorio, 3
 Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

MAULEN

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

MIARRITZEN

Eki: 21 av. de Verdun

PARISEN

Euskal etxea: 10 rue Duban 16é

maiatz.

15, Pontrique karrikan - 64100 Baiona

Tél.: (59) 59.86.33 - Banco de Bilbao - 20007014004

Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) : 90 F edo 1 500 Ptas
 sostengu gisa : 150 F edo 2 800 Ptas.

HEGOALDETIK ABONATZEKO

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-
 rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura:
 Izena:
 Hebidea:

 Posta zenbakia:
 Hiria:
 Herria:

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:
 Adina: Lanbidea:
 Telefono zenbakia:

•
 Edité par l'association MAIATZ
 Responsable de publication Maya Bovard
 Dépôt légal : 2ième trimestre 1984
 Imprimerie Impriminute à Bayonne
 Imprimerie Mugalde à Hendaye

Maiatz.

Maiatz - batasun, Baionako Balichon eko M.J. Can. Legezko arduradun : M. Bovard.

Inprimatzaile : Mugalde Hendaian, Inpriminute Baionan, 1984, eko apirila. Hiru hilabetekaria : 25 F edo 400 pta.

Urte osoko harpidetza : 90 f edo 1 600 pta. Banco de Bilbao : 20 007 014 004

15, Pontrique Karrikan 64 100 Baiona. Telefona (59) 59.86.33. Dépôt Légal 2ième trimestres 1984. ager arazle